
NOTA LABURRAK

PAULO VI EGO-AMERIKA'N

galderak eta zalantzak



Indar berri batzuk astindurik daukate Ego-Amerika. Esnatzen dijoa herria. Azitakoan, zer izango da? Nazio-artean leku egokirik arkituko al du?

Oraingo egoera tristearen aldakuntza izerdiz eta nekez bakarrik, ala odoletan kutsuturik egingo ote da?

Hemendik ogei ta amar urtera izango diren 690 milloi hoiek, gaurko estruktura ta erakunde berak ikusiko al dituzte?

Aita Santuak ausarditsu salatu ditu gaurko estrukturen bidegabekerlak. Baiña beharrezkoa dan erreboluzio hori, gogorkeriz, biolentziz, ez da azkarrago burutuko. **«Zuen itxaropenik ez jar gogorkerian. Biolentziak, Kristautasunaren kontrakoa izanez gaiñera, zuen etorkizunaren hobeagotzea berandutu besterik ez du egingo».**

Baiña, aberatsak eta herrietako zuzendariak erreforma gogorrak egin beharrean daude. Bestela, Historian zehar gertatu dana bera etorriko da; pobreak eta zapalduak beren eskubideak indarka lortzea, lehenik gutxi ziran aberatsak garaiz eta arrazoiz jokatu etzutelako, gizarte osoaren onerako.

Eleizak, apaizek, eta kristauek, hortan ekin behar dute: herriaren miñak eta prolemak bizi, sufritzen duten guztien biotza izan. Kristauen buruak, kapitalistenak eta pobreenak, eglan, elkar-maitasunean, ezi; elkarren eskubideak errespetatzen erakutsi. Lurra arrotu ta landu, ahalik eta laisterren justitzian ta askatasunean oiñarritutako gizarte berriaren landarea sor eta azi dedin.

Ego-Amerika'ko Eleizak, eta Eleizatik kanpokoek, gallenduko ote dute krisis ikaragarri hori?

Herrien zuzendariek, intelektualek eta haundizkiek pentsatuko ote dituzte, pertsona guzien eskubideak defenditzen eta errespetatzen dituzten erreforma eta erreboluzio hori?

Eta ondo burututako programa hoiek egia ta errealitatea bihurtuko al dituzte?

Hala biz.

M. P.